




<p>➤ Adierazi nukleoa eta gai genetikoari buruzko adierazpen hauek egiazkoak ala gezurrezkoak diren.</p>		
1. Giza zelulen nukleoan 46 DNA molekula daude.	E	G
2. Kromatinaren eremu aktiboagoak estaldura nuklearretik gertu daude; horrela RNA berrien esportazioa errazagoa izango da.	E	G
3. Heterokromatinaren paketatze-maila altua da: eremu horietan DNA eta histonak elkartzen dira 30 nm-ko zuntza sortzeko.	E	G
4. Interfaseko kromosometan badaude telomeroak baina zentromerorik ez.	E	G
5. DNA eukariotikoan sekuentzia errepikagarriak adierazgarriak baino ugariagoak dira.	E	G
6. Kromosoma mitotikoetan ez dago nukleosomarik: eliminatuak izan behar dira paketatze estuena lortu ahal izateko.	E	G
7. Gene eukariotiko gehienek exonak eta intronak dituzte.	E	G
8. Intronak DNA sekuentziak dira: ez dira transkribatzen RNA molekuletan.	E	G
9. RNA mezulariaren sintesia nukleoan gertatzen da, RNAREN heltzea ordea, prozesu zitoplasmatikoa da.	E	G
10. Gene espresioaren produktu finalak proteinak edo RNA molekulak izan daitezke.	E	G
11. Nukleoloan sintetizatzen dira zelularen RNA txiki gehienak; tRNA molekulak, besteak beste.	E	G
12. Gene nukleolarrak normalean inaktibo moduan daude: bakarrik aktibatzen dira erribosoma zaharrak ordezkatuak izan behar direnean.	E	G
13. Azpiunitate erribosomikoak nukleoloaren barruan elkartzen dira esportatuak izan baino lehen.	E	G
14. Xafla nuklearra gune perinuklearraren barruan kokatuta dago	E	G
15. Xafla nuklearraren osagaien fosforilazioaren ondorioz nukleoa desantolatuko da.	E	G
16. Estaldura nuklearra miloika poroz zeharkaturik dago.	E	G
17. RNA molekulak proteinekin elkartuta egon behar dira poro nuklearretik irten ahal izateko.	E	G
18. Ran proteina poro nuklearraren osagai nagusia da.	E	G